



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2016ko urriaren 25a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehen

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:25

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Miriam Uranga Egurtza, Jose Angel Iparraguirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Aizpea Ubegun Manterola zinegotzia (EH Bildu) 20:15ean sartzen da bilkurara, udalbatzarra gai-zerrendako 6. gaia (eskariak eta galderak) aztertzen hasi aurretik eta aurreko bost gaiak aztertu eta erabaki ondoren.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarrak 2016ko irailaren 27an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborria.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 6/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 3.- Onartzea, egoki bada, auto-taxi zerbitzuaren tarifa urbanoak 2017rako.
- 4.- Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, eragina 2017ko urtarilaren 1etik aurrera izango duena.
- 5.- Onartzea, egoki bada, ORAIN udal talde politikoak egindako dohaintza: minieskubaloirako aluminiozko ateak, 3.448,50 euroko balioa dutenak.
- 6.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2016KO IRAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORRIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2016ko irailaren 27an egindako ohiko bilkurako akta.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 6/2016 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 6/2016 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 128.891 euroko zenbatekoa du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2016ko urriaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2016ko aurrekontuari dagokion 6/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean eginga dago eta 128.891 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta hau adierazten du: kreditua aldatzeko espediente honek 14.859 euroko partida bat jasotzen du Itxaspeko bidean gertatutako luizia konpontzeko obretarako, eta nabarmendu nahi du inbertsio publiko bat planteatzen dela jabetza pribatukoak diren lurretan. Emeterio Iribarrek adierazten du, gainera, Udalak adostu beharko lukeela horko lur-jabeekin animaliak ez ibiltzea sueto inguruan, arriskuak saihesteko.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du lur-jabeek eskubide osoa dutela beren lurretan animaliak sueto edukitzeko, nahiz eta kontuan hartu behar den Itxaspeko bideak erabilera publiko nabarmena duela.



3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOAK 2017RAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Taxiaren Gipuzkoako Elkarteak proposatu du 2017. urtean ez aldatzea Urola Kosta bailaran gaur egun indarrean dauden tarifak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2016ko urriaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

EZ IGOTZEA indarrean dauden Urola Kosta bailarako auto-taxi zerbitzuaren tarifak, Taxiaren Gipuzkoako Elkarteak elkarteak proposatutakoa aintzakotzat hartuz. Tarifa horiek, beraz, indarrean segituko dute 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETA, ERAGINA 2017KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2016ko urriaren 20ko Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzailean diktaminatu da, segidan zehazten den eran:

1.- Aho batez diktaminatzen da Izaera Urbanoko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagozkion karga-tasak igotzea, era honetan:

- ‰ 3,964, zona industrial edo tertziarioetan kokatuta dauden ondasun urbanoetarako.
- ‰ 1,840, gainerako ondasun higiezinetarako.

Familia ugariantzako hobariak indarrean segituko dute, honako zehaztasunekin:

- Familia ugariaren ohiko etxebizitza izan behar du eta familiako kideak bertan egongo dira errolatuta.
- Familia-unitateko kideek ez dute jabetzan eduki behar beste ondasun higiezinik, ohiko etxebizitzaz gain.

Diktaminatzen da Nekazaritza izaerako ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikatzen zaion karga-tasa %1,10ean mantentzea.

Era berean, diktaminatzen da **KENDUTA MANTENTZEA** modu iraunkorrean desokupatuta dauden etxebizitza-erabilerako ondasun higiezinari aplikatzen zaien izaera urbanoko ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota likidoaren %100eko errenergua.



2.- Aho batez diktaminatzen da **EZ IGOTZEA** Orioko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako hainbat ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritako gutxieneko kuoten gehikuntzarako koefiziente bakarra.

3.- Aho batez diktaminatzen da **EZ IGOTZEA** izaera urbanoko lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren urteko portzentajeak, eta **EZ IGOTZEA** zerga horren karga-tasa.

Ondoko hobariak diktaminatzen dira:

- “Mortis causa” irabazi asmoarekin egiten diren lur eskualdatze edo, jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealek eratze edo eskualdatzeak egitean hobari hau izango da: Kuota osoaren %50ekoa senar edo emazteentzat edo izatezko bikoteak arautzeko maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikoteetako kideentzat, baldin eta eskualdatutako ondasuna edo eskubidea oinordeko horietako baten ohiko bizilekuari (eranskin eta guzti) badagokio.
- Hobari hau eskatu beharrekoa da; beraz, izan nahi badu, eskatu egin behar du herritarrak.

4.- Aho batez diktaminatzen da **EZ IGOTZEA** trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergari aplikagarri zaizkion tarifak eta bere horretan mantentzea zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalak ezarritako hobariak.

A) Turismoak atalean bakarrik diktaminatzen dira %3ko igoera proportzionalak (ibilgailuen udal erroldan %79 dira); honela geratzen da:

Potentzia eta ibilgailu-mota	Kuota, eurotan
------------------------------	----------------

A) Turismoak

- | | |
|----------------------------------|--------|
| • 9 zalditik beherakoak..... | 39,45 |
| • 9tik 11,99ra bitartekoak..... | 81,75 |
| • 12tik 13,99ra bitartekoak..... | 133,80 |
| • 14tik 15,99ra bitartekoak..... | 190,15 |
| • 16tik 19,99ra bitartekoak..... | 251,85 |
| • 20tik gorakoak..... | 311,40 |

5.- Aho batez diktaminatzen da **EZ IGOTZEA** eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari aplikagarri zaizkion karga-tasak.



Indarrean segituko dute zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hoberi guztiek.

6.- Aho batez diktaminatzen da EZ IGOTZEA ondoko tasen tarifak:

- Udal erabilera publikoko lurretan zangak eta hobiak irekitzea.
- Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea (ezarritako hoberiek indarrean segituko dute).
- Ibilgailuak sartzeari espaloian barrena eta bide publikoa erreserbatzea modu eksklusiboan aparkatzeko, ibilgailuak geratzeko eta edozein motatako salgaien zama-lanerako.
- Edozein udal bide publikoren hegala-irteera okupatzea.
- Indar elektrikoa, ura, gasa edo beste edozein fluido garraiatzeko linea, hoditeri eta galeriak.
- Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea, mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko beste elementuak erabiliz, irabazteko asmoa dagoenean, indarrean eutsiz ezarritako hoberiei.
- Bide publikoan kioskoak instalatzea.
- Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta-guneak, ikuskizunak, atrakzioak eta horrelakoak instalatzea (kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema-filmaketak barne). Horretarako ezarrita dauden hoberiek indarrean segituko dute.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerrietako kaleetan aparkatzea, horretarako erabakitako zonen barruan eta muga jakin batzuekin. Udal eranskailuaren prezioa igotzea bakarrik diktaminatzen da; honela geratzen da: 60 €/denboraldiko.
- Bide publikoko lurzoru, lurpea eta hegalkinen erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia.
- Kutxazain automatikoak eta bide publikotik irismena duten salmenta-makinen instalazioa eta funtzionamendua.
- Autotaxien eta errentako gaineko ibilgailuen lizentziak edo baimenak ematea. Auto-taxi baimenaren urteko mantentzearen tarifa igotzea bakarrik diktaminatzen da; honela geratzen da: 75 €.



- Udal administrazioak edo udal agintariek norbaiten eskariz emandako agiriak. Diktaminatzen da tarifa espezifiko bat ezartzea Udalaren erroldan ofiziozko baja tramitzeko espedienteetarako, baldin eta pertsona erroldatuta egon den denbora sei hilabete baino laburragoa izan bada; kasu horretan aplikatuko den tarifa 150 eurokoa izango da.
- Lurzoruari eta antolamendu urbanoari buruzko legeek exijitutako lizentzia urbanistikoak ematea.
- Udal hilerrian zerbitzuak eta kontzesioak ematea.
- Estoldako zerbitzua ematea.
- Ibilgailuak geraraztea eta bide publikotik erretiratzea.
- Orioko Eguneko Zentroan ile-apaindegi zerbitzuak ematea.
- Jarduera-lizentzia ematea eta jardueraren eta instalazioaren funtzionamenduari buruzko ikuskatzeak egitea.

Tasa honetan diktaminatzen da %50eko hobaria berrestea jarduera lizentzien eta instalazioen tarifetan, Orioko kasko historikoan (Kale Nagusia, Pilliku plaza, Oa kalea, Urdaire kalea, Iturbide kalea —musika eskolatik kalearen bukaeraraino— eta Antxiola kalea —Oa kalearekin bat egiten duen tokitik Claesens etxeraino—).

- Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea.
- Udal pilotalekuaren erabilera eta Orioko Antilla hondartzako kabinen erabilera. Bakar-bakarrik diktaminatzen da 0,20 euroko tarifa bat, Antillako hondartzako kabinetako dutzak eta komunak erabiltzeagatik.
- Udak kiroldegiko garajeen erabilera.
- Kultur etxeko aretoen erabilera.
- Udalbatzarraren aretoaren erabilera.
- Azurza Etxeko tutoretzapeko apartamentuen erabilera. Erabiltzaileei aplikatzen zaizkien hobariak indarrean segituko dute; horretarako, diru-sarrera osoak kontuan hartuko dira (lan errentak eta kapitala) eta ez bakarrik pentsioen kopurua.
- Udal futbol/sofbol zelaiaren erabilera.



- Iturriaga jauregian kokatutako Euskal Herriko Done Jakue Bidearen interpretazio-zentroaren erabilera.
- Udaletxeko teilatupeko gelaren erabilera.
- Udalaren txosnaren erabilera.
- Udalaren oholtzaren erabilera.
- Mendibeltz futbol/sofbol zelaiaren azpiko garajeen erabilera
- Arraunetxeko instalazioen erabilera. Diktaminatzen da da ontziak alokatzeko zerbitzuaren tarifak ez igotzea eta apalak erabiltzeko tarifak ere ez.
- Katea (KTA) eraikineko lokalen erabilera
- Salatxo udal aretoaren erabilera.
- Udal parrilen erabilera.
- Udal ludotekaren erabilera.

7.- Zaborren eta hondakin solido urbanoen bilketa-zerbitzuaren tasa dela-eta, guztiz zerbitzu defizitarioa denez, hau diktaminatzen da aho batez: gaia mahai gainean uztea, 2017an aplikatuko diren tarifak behar bezala aztertu ahal izateko; nolanahi ere, batzordeak konpromisoa hartzen du tarifa horiek udalbatzarraren 2016ko abenduko bilkuran onartzeko.

8.- Aho batez diktaminatzen da mahai gainean uztea Danbolin musika eskolako 2017-18 ikasturteko tarifen gaia.

9.- Aho batez diktaminatzen da udal kanpina erabiltzeko tarifak igotzea, kanpineko zuzendariak proposatu eta Turismo batzorde informatzaileak diktaminatutakoaren arabera.

10.- Aho batez diktaminatzen da udal kiroldegia erabiltzeko tarifak igotzea, BPXport Kirol Zerbitzuak enpresa adjudikaziodunak proposatu eta Kirol batzorde informatzaileak diktaminatutakoaren arabera.

11.- Aho batez diktaminatzen da tenis-padel-squash-eko pista erabiltzeko tarifak igotzea, BPXport Kirol Zerbitzuak enpresa adjudikaziodunak proposatu eta Kirol batzorde informatzaileak diktaminatutakoaren arabera.

12.- Aho batez diktaminatzen da tarifa hauek ezartzea txu-txu trenaren erabileragatik eta bertan iragarkiak jartzeagatik:



- Txu-txu trenaren joan-etorriko bidaia, Herriko Plazatik Antillako hondartzara, udako denboraldian: 1,50 euro/ pertsonako.
- 10 joan-etorriko bonua: 6 euro.

13.- Aho batez diktaminatzen da Arraunetxeko instalazioak erabiltzeko tarifak egokitzea, medikuntzari eta kirol-elikadurari dagokionez eta hipoxia aretoaren erabilerari dagokionez, BPXport Kirol Zerbitzuak enpresa adjudikaziodunak proposatu eta Kirol batzorde informatzaileak diktaminatutakoaren arabera. Tarifak hauek izango dira:

Prestakuntza fisikoa

Prestakuntza indibidual pertsonalizatua.....59,65 €

Nutrizioa

Kirol azterketa eta dieta pertsonalizatuak.....59,65 €

Argaltzeko azterketa eta dieta pertsonalizatuak.....59,65 €

Kontrola eta jarraipena.....26,80 €

Kirol medikuntza

Oinarrizko azterketa medikua.....46,75 €

Oinarrizko esfortzu testa (elektrokardiograma).....89,75 €

Esfortzu test aurreratua (elektro+laktatoak).....124,85 €

Ekografia.....83,65 €

Kontsulta.....56,10 €

Ekokardiograma.....66,30 €

Biomekanika

Ziklismorako azterketa biomekanikoa.....126,50 €

Hipoxia

Saio bakarra.....25,50 €

10 saioko bonua.....122,40 €

20 saioko bonua.....204,00 €



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2016ko urriaren 20an egindako bilkuran egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu), Igoa (EH Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **HAMAIA ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Ordenantza Fiskalen Aldaketari eta bere eranskinei, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminotan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, honako arauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORAIN UDAL TALDE POLITIKOAK EGINDAKO DOHAINTZA: MINIESKUBALDIRAKO ALUMINIOZKO ATEAK, 3.448,50 EUROKO BALIOA DUTENAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2016ko urriaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA ORAIN udal talde politikoak egindako dohaintza: minieskubaloirako aluminiozko atea, 3.448,50 euroko balioa dutenak eta Zaragueta eskolan instalatuta daudenak.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta EAJri eskatzen dio batzorde informatzaileen bilkurak behar bezala planifikatzeko, Udaleko talde politikoek aukera izan dezaten gaiak denborarekin aztertzeke eta beren proposamenak lantzeko

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EE-PSOeren izenean, eta kritikatu egiten du ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketaren gaiarekin gertatutakoa: Ogasun batzordearen bi bilkura baizik ez dira egin eta astebeteaz aztertu behar izan dute gaia; horrek, bere ustez, zentzurik ez dauka eta alkatearen antolamendu-falta erakusten du.

Ana Priedek bereziki kritikatzeko du zaborren tarifarekin gertatutakoa: 2016rako %8ko igoera onartu zen eta, geroztik, urtebete pasatuta, ez da beste ezer egin; hori, bere ustez, surrealista da eta gogorarazten dio alkateari bera dela udalbatzar honetan dedikazio osoa daukan bakarra eta, beraz, aitzakiarik ez duela gauzak ondo eta garaiz egiteko.

Miriam Uranga zinegotziak hartzen du hitza, ORAINen izenean, eta adierazten du bat egiten duela EH Bilduren eta PSE-EE-PSOeren bozeramaileek esandakoarekin. Eskatzen du, aurrerantzean, ordenantza fiskalen gaia aztertzeke Ogasun batzordeak egiten dituen bilkurak behar bezala eta garaiz planifikatzea, talde politikoek aukera izan dezaten alkatetzaren proposamenak aztertzeke eta berenak aurkezteke.

Aipatua izan denez, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du gai-zerrendako gaiak behar bezala landuta daudenean deitzen direla Ogasun batzordeko bilkurak. Eta, beraz, aste batean izan litezkeela hiru bilkura, eta hurrengoan, berriz, batere ez.

Azkenik, Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du alkatetzak Ogasun batzordeko kideei bidalitako proposamena, ordenantza fiskalak eta beren eranskinak aldatzekoa, udal teknikari baten barneko dokumentu batetik kopiatu eta itsatsitakoa dela eta ez, berez, alkateak berak landutakoa.



ORIOKOU DALA



Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,